

PRENTSA OHARRA

DONOSTIAKO UDAL TXISTULARI BANDA BILBAOMUSIKAK EUSKALDUNA JAUREGIAN ESKAINTZEN DUEN KONTZERTU-ZIKLOKO PROTAGONISTA IZANGO DA BIHAR, EGUAZTENA

- **Zortzi kideko talde honek Joaquin Oxinaga; Jose Ignazio Ansorena; Fermin Muñoz; Urtzi Iraizoz; Jose Maria Gonzalez Bastida eta Hilario Olazaranen doinuak eskainiko ditu**
- **Jose Ignazio Ansorena da Bandaren egungo zuzendaria. Bere musika-lanek eta euskal musika-ondarea ezagutarazteko egin duen ahaleginak ospe handia eman diote**
- **Kontzertua Euskalduna Jauregian izango da, 20:00etan. Sarrera doakoa da**

Bilbon, 2010eko otsailak 9.- Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren menpeko Udal Txistulari Bandak gonbidatu berezi-bereziak izango ditu **BIHAR, eguaztena, hilak 10**, bere kontzertu-zikloaren barruan: Donostiako Udal Txistulari Bandako kideak. Hitzordua Euskalduna Jauregiko **A3** aretoan izango da, 20:00etan, eta sarrera doakoa izango da.

Donostiako Udal Txistulari Banda osatzen duten zortzi kideek –Jose Ignazio Ansorena, Aitor Arozena, Jagoba Astiazaran, Juan Vega, Ion Irazoki, Jokin Kanpion, Agustin Laskurain, Francisco Lera, Julio Garcia eta Aitor Gaston– XIX. mendeaz geroko tradizio luzeari eutsi diote. Txistulariek Donostiako auzoetako jaietan parte hartu ohi zuten, 1824ko agiriei esker jakin ahal izan denez. Hauek dira, besteak beste, talde honetako kide izandako musikariak (eta musikagileak): Eusebio Basurko, Javier Hernandez Arsuaga eta Isidro Ansorena. Azken honen biloba Jose Ignazio arduratzen da gaur egun taldea zuzentzeaz. Generoa ezagutarazteko egin duen ahaleginak ospea eta izen ona eman diote, baita Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo-hirukoteko kidea izateak ere.

Musikari hauetatik, sei txistulari edo danbolin-joleak dira, hots, euskal txistu eta danbolinaren familiako instrumentuen jotzaileak (txirula edo txilibitua, txistua eta silbotea, zein bere danbolinarekin), eta beste biak perkusio-jotzaileak dira. Denek bestelako instrumentuak ere jotzen dituzte (tronpetak, fagota, biolina eta beste batzuk tarteko direla), eta noizean behin, kontzertuetan ere erabiltzen dituzte instrumentu horiek.

Kontzertu honetarako, Taldeak euskal musikagileen doinuak aukeratu ditu nagusiki, hala nola, **Joaquin Oxinagaren** 'Bosgarren tonuko Sonata'; **Jose Ignazio Ansorenaren** 'II Bilduma', **Fermin Muñozen** 'Pazkoetan den alegerena'; **Urtzi Iraizozen** 'Lesaka'; **Jose Maria Gonzalez Bastidaren** 'Iduriak', eta **Hilario Olazaranen** 'Txoriak'. Programa osatzeko, **Tielman Susato** XVI. mendeko musikagile flandestarraren 'Danserye' eskainiko du. Moldaketa guztiak Jose Ignazio Ansorenak egin ditu.

Informazio gehiago:

PRENTSA KABINETEA

L&V COMUNICACION – Itziar Villamandos

Kale Nagusia 81-3. solairua, 9. bulegoa, 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 - Fax: 94 439 30 56

Sakelakoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com